



## LEGEZKOTASUN-TXOSTENA, «CHACOLÍ - TXAKOLINA - TXAKOLÍ» TERMINO TRADIZIONALA ERABILTZEKO BALDINTZAK EZARTZEN DITUEN EKONOMIAREN GARAPEN, IRAUNKORTASUN ETA INGURUMENEO SAILBURUAREN AGINDUARI BURUZKOA

24/2024 LT LAAKZ  
DNCG\_DEC\_740/24\_05

### SARRERA

Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saileko Aholkularitza Juridikoak legezketasun-txostena eskatu du «Chacolí - Txakolina - Txakolí» termino tradizionala erabiltzeko baldintzak ezartzen dituen agindu-zirriborroari buruz.

Espedientean honako dokumentazio hau sartu da:

- Zerbitzu Juridiko Nagusiarentzako memoria laburra.
- Hasteko agindua.
- Memoria ekonomikoa.
- Kontseilu arautzaileen txostena.
- MAPAri buruzko informazioa, Espainiarako ardo babestuen termino tradizionalari buruzkoa.
- "Txakolina-txakolina" termino tradizionalaren egungo erregistroa, Europako Batzordeko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiaren datu-basean.
- Araudian izango duen eraginari buruzko memoria.
- Proiektua onartzeko agindua.
- Informatzeko eskaera.

Txosten hau Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.b) artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 13.1 artikuluan xedatutakoaren arabera egin da, honako hauekin lotuta: Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.i) artikulua, Euskal Autonomia



Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 15.1.a) artikulua.

## LEGEZKOTASUNA

### 1. Xedea.

Txostenaren xedea da «Chacolí - Txakolina - Txakolí» termino tradizionala erabiltzeko baldintzak ezartzen dituen agindu-zirriborroaren legezkotasuna. Aginduak azalpen-zati bat, artikulua bakarra, azken xedapen bat eta eranskin bat ditu.

### 2. Arau-aurrekariak

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1308/2013 (UA) Erregelamenduak, Nekazaritzako Produktuen Merkatuen Antolakunde Erkidea sortzen duenak, gutxieneko kalitate-eskakizunak (merkaturatze-arauak), arauak eta baldintzak ezartzen ditu ekoizpen-prozesuaren eta produktuaren kalitatea bermatzeko, eta aukerako aipamenak balio erantsia duten produktuaren ezaugarrietarako edo zenbait produkturen ekoizpen-prozesuetarako erabiltzeko arauak zehazten ditu. 93. artikuluan eta hurrengoetan, jatorri-deiturak eta adierazpen geografikoak arautzen ditu.

Babestutako jatorri-deiturak eta adierazpen geografiko babestuak, bai eta produktuaren baldintza-agiriari jarraiki babestutako izen horiek erabiltzen dituzten ardoak ere, babestu egingo dira:

a) izen babestu baten zuzeneko edo zeharkako merkataritza-erabilera oro:

- i) izen babestuaren baldintza-agirira egokitzen ez diren produktu konparagarriengatik, edo
- ii) erabilera horrek jatorri-deitura edo adierazpen geografiko baten ospea baliatzen duen heinean;

b) usurpazio, imitazio edo ebokazio oro, produktuaren edo zerbitzuaren benetako jatorria adierazten bada ere, edo babestutako izena itzultzen, transkribatzen edo translitatzen bada, edo "estiloa", "mota", "metodoa", "gisa ekoitzia", "imitazioa", "zaporea", "antzekoa" edo antzeko beste termino batzuk baditu;

c) produktuaren jatorriari, izaerari edo funtsezko ezaugarriari buruzko beste edozein adierazpen faltsu edo engainagarri, ontzian edo enbalajearen, publizitatean edo kasuan kasuko ardo-produktuari buruzko dokumentuetan jasotzen baditu, bai eta beren ezaugarriengatik jatorriari buruzko inpresio okerra sor dezaketen ontzien erabilera ere;

d) produktuaren benetako jatorriari buruz kontsumitzailea nahas dezakeen beste edozein praktika.

"Aipamen tradizionalak" erregelamendu bereko 112. artikuluan jasotzen dira, eta honela definitzen dira:

"92. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen diren produktueterako estatu kideetan erabili ohi den esamoldea, honako hauek adierazteko:

- a) produktua jatorri-deitura babestu (JDB) bati edo adierazpen geografiko babestu bati atxikita dagoela, Batasuneko edo nazioko legeriaren arabera, edo
- b) elaborazio- edo zahartze-metodoa, edo jatorri-deitura babestu bati edo adierazpen geografiko babestu bati atxikitako produktuaren historiari lotutako kalitatea, kolorea, leku-mota edo gertakari jakin bat. "

Gaur egun, Europako Batzordeko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiaren erregistroak "chacolí" edo "txakolina" aipamena jasotzen du ("mención" edo "término", bi hitz horiek berdin erabiltzen dira Europako Erkidegoko araudiaren gaztelaniazko bertsioetan), JDB duen ardo gisa eta aldatu nahi den terminoa erabiltzeko baldintza batzuekin. Erkidegoko erregistro horietan aldaketa bat sartzeak eskatzen du aldeztatik estatu kidearen barne-araudian aldaketa egin izana, horixe baita txostenaren xede den agindu-proiektuaren xedea.

Azkenik, Erregelamendu berak edozein ardo izan behar dituen gutxieneko baldintzak ezartzen ditu: gutxieneko eta gehieneko alkohol-gradua eta gutxieneko guztizko azidotasuna. Horrela, termino tradizionala erabiltzeko baldintzak desagertzen direnez, baldintza orokorrak aipatutako erregelamenduak zehazten dituen Europako ardogintza-eremuko ardoentzat izango lirateke.

### 3. Proposamena ordenamendura egokitzea

Oro har, proiektatutako agindua bat dator indarrean dagoen araudiarekin. Hala ere, ohar bat egin behar da Azken Xedapen Bakarrari buruz, indarrean noiz sartuko den zehaztu gabe uzten baitu: "Europako Batzordeak termino tradizional horien aldaketak onartzen dituen betearazpen-egintza indarrean sartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak agindu honek, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 17ko 1308/2013 (EB) Erregelamenduaren 115.2 artikuluekin bat etorritik. "

Horri dagokionez, gogoratu behar da *lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideek*<sup>1</sup> zer adierazten duten indarrean sartzeari buruzko azken xedapen hauei buruz:

*Indarrean noiz jarriko den zehazteko, urtea, hila eta eguna adieraziko dira.*

<sup>1</sup> Uztailaren 28ko 78/2023 erabakia, zeinaren bidez lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak onartzen baitira



*Ez da inola ere erabiliko zalantzazko legezkotasun material eta formaleko klausularik, hala nola: «arau hau kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean dago...», horrelako baldintzek arauaren baliozkotasuna bera zalantzan jartzen baitute.*

Aurreikusitako arauak, praktikan, ez du inolako ondorio errealik izango Europar Batasuneko erregistroetan aurreikusitako aldaketa jaso arte, baina, horregatik, ez dago inolako oztoporik, aipatutako jarraibideek ezarritakoaren arabera, indarrean jartzeko data zehatza adierazteko.

Bestalde, arauaren eragina aztertzekeo memorian xedapen orokor bat dela adierazten den arren (4. orrialdea, lehen paragrafoa), proiektuaren gaztelaniazko bertsioak dio proiektatutako aginduak "eragina" izango duela, indarrean sartuko dela adierazi beharrean. Eztabaidagarria izan daiteke agindu-proiektua xedapen orokorra edo administrazio-egintza den, baina Sailak erabaki ondoren xedapen orokorra dela, azken xedapenaren idazketak koherentea izan behar du. Era berean, adierazi behar da adierazpenak berdina izan behar duela proiektuaren bi bertsioetan, euskaraz eta gaztelaniaz.

#### **4. Beste gai batzuk**

Proiektuak hirugarren forma gisa sartu nahi du "txakolí" terminoa, hiru JDBetako erregelamenduetan jasota omen dagoena. Hala ere, araudi horietan "txakoli" jasotzen da, tilderik gabe, ezta gaztelaniazko bertsioan ere.

Proiektuaren azalpen-zatiaren bosgarren paragrafoak "Ondarrabi Zuri y Ondarrabi Beltza" mahats-barietateak aipatzen ditu. Gaztelaniazko juntagailuaren erabilera okerraz gain, ez du zentzurik euskaraz eta gaztelaniaz grafia desberdinak erabiltzeak. JDB bakoitzaren arau erregulatzailleek "Hondarrabia" hitza erabiltzen dute euskaraz eta "Ondarrabi" gaztelaniaz. "Ondarrabi" hitza ez denez gaztelaniazko corpus lexiko bakar batean ere jasotzen, "hondarrabia" forma erabiltzea gomendatzen da beti, hitz hori idazteko modu zuzena baita, termino hori zein hizkuntzatan txertatzen den kontuan hartu gabe.

Bestetik, "-a" atzizkia erabili behar da, kasu guztietan, barietateak aipatzean. Egitasmoan, "Hondarrabi zuri" esaten da, "hondarrabi zuria" esan beharrean. Ahatik, aipatzen den beste barietatea "Beltza" da, eta ez "beltz". Irizpide bakarra izan behar dugu barietateak izenda eta aipatzeko. Antzeko arazo baten aurrean (ahuntz azpigorria, alegia) Itzultzaileen Zerbitzu Ofizialak gomendatu zuen "-a" atzizkia erabiltzea kasu eta hizkuntz guztietan. Beraz, barietateok izan behar dute *hondarrabi zuria*, *hondarrabi zuri zerratia*, eta *hondarrabi beltza*, hizki xeheak erabiliz.

Azkenik, gogorarazten da badagoela modu zuzena barietateak izendatzeko testu zientifikoetan. Hondarrabi zuriaren kasua izango zen *Vitis vinifera* var. *hondarrabi zuria*; dena letra etzanean, "var." izan ezik. Gomendagarria izango zen barietateen izen zientifikoaren aipua, behin baino ez bada ere, aginduan.

## 5. Ondorioa

Esandako guztiarekin, eta emandako gomendioak ere adituta, legezkotzat jotzen dugu aztertutako xedapen proiektua.

Hau da sinatzen duen letraduaren txostena, zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen mende jartzen dena.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan.